

Batua, Irlanda, Islandia, Italia, Luxenburg, Norvegia, Herbehereak, Suedia, Turkia, Mendebaleko Alemania, Austria, Txipre, Suitza eta Malta. Europako Kontseilu hau leku aproposa gertatzen da eritzi politikoak kontrastatzeko, baina haren eragina oso mugatua gelditzen da praxi politikoan, hor hartzen diren erabakiek ez baitute agindu-indarrik *gobernu mailan.

EUSKAL INSTITUZIOAK.

Europako Merkatu Batua

EUROPAKO EKONOMI ELKARTEA (EEE).

Europeismoa

europeísmo/sens de l'Europe

Europak lurralde ez-europarretan, kolonialetan bereberki, izan zuen eragintasuna adierazten du hitz horrek. Alde batetik, *aurrerapenik zabaldu bazuen ere (teknika, medikuntza, etab.), *lurralde haien europartzak eskuarki beraien tradizioentzat kalte gaitza ekarri izan du. Europeismo deritzo, baita ere, gizateria osoaren historia guztia Europatik hara begiratze eta epaitzeari, Europako historian baliozko ageri diren eskema eta ereduak beste herrietako historiaren goitik jarriz.

KOLONIALISMOA.

Euskadi

*Euskal Herri edo euskal *nazioaren *lurralde historikoen izen geografiko eta politikoa da, 20.439 km. koadratu hedaduraz eta 2,7 milioi bizilagunekin, sei (edo zazpi) *herrialde tradizionalak biltzen dituena: Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Lapurdi, Nafarroa (Garaia eta Beherea), Zuberoa. Aturri eta Ebro, Gaztela eta Aragoa artean, lekutzen da, Bizkaiko itsas golkoaren inguru. Euskadi, gaur, Espainiako eta Frantziako *Estatuen menpean dago, erdian *muga bat, bere nortasun nazionala ez Estatu batean, ez bestean ezagutzen zaiola: Espainiak Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroaren parte bat dauzka, Nafarroa Garaia; Frantziak, berriz, Lapurdi, Zuberoa, eta Nafarroaren beste partea, Nafarroa Behere edo Seigarren *Merinaldea. Euskadi historikoaren ardatza Nafarroa izan da.

Eguno Euskadi ez da ez *lurraldez,

ez *instituzio erakuntzaz ere, *Euskal Herri historikoaren adina. Harmen indarrez *Foruak kenduta, ez dago bere *lege zaharrez gobernatua: bere barnetik, bada, *herri eta *nazio gisa, egungo Euskadi puskaturik dago, ezin duelako bere nortasuna gorputz instituzional batetan bildu eta bere burua berjabe aurrera eramán. Txikitua lurraldez: egun Euskadi ohi dertizán lur-inguruan ez dira euskaldunen lurralde historiko guztiak ere sartzen, mugaketa geografikoa egiterrakoan, Estatu espainolak eta frantsesak murrizturiko eta beren *administrazioetan inposaturiko errealitateei segitu behar izan baitzaie: adibidez, Okamendiak, Bureba, etab., euskaldunen lurralde historiko eta Nafarroako *Erresuma izanak dira, gero administrazio espainolak apartatuak eta *prohibitzia espainoletan erantsiak eta *asimilatuak (ik. ASIMILAZIOA). Hizkuntz batasuna ere hautsia du Euskadik. Egoera honetan, Euskadi hitzak, sarri, lurraldeaz gainera, euskal nazioa bera politikoki adierazteko balio du.

Euskadi hitza, *euskal *nazionalismoaren hasierako neologismoa da, teoria politikoan beharrezko ageri ziren konzeptu-berezkuntzak eta zehaztapenak *nazionalitate-printzipioaren arauera egiteko Sabino *Arana Goirik (*PNV), itxuraz gaztelaniazko Euskeria/Euskaria-ren antzera, asmatua, eusk sustrai eta -di atzizkileku (Aranaren ustez baita ere «talde») adierazleaz, gero aski zilegiztatua eta mintzairan finkatua, bai herriaren solasetako nahiz literaturako usadio arruntak, euskaraz zein erdaraz, eta bai dokumentu ofizialetakoak, II. Errepublikan, Gobernu Errepublikanoaren eta *Euzko-Jaurlaritzaren Agirietan. Euskadi hitza, (oker etimologiko batez, Aranek Euzkadi idazten zuen), bere hasieran bana-banaka eta isolaturik aurkitzen da. 1887.ean ikusi da, dirudienez, lehenengo aldiz idatzita (*Etimologías euskéricas*), 1896.ean gero, «Zazpiak bat» harmarrían. (*Lecciones de Ortografía del euskera* (s!) bizkaino) eta 1899.ean berríro, (*Vicios usuales del euzkera* (z!) bizkaino); baina 1901.etik aurrera bakarrik hasi da Arana Goiri Euzkadi aldizkarian, ordurarteko Euskeriaren or-

Euskadiko Ezkerra

dez, neologismo hori sistimatikoki erabiltzen bere *ideologia abertzalearen ager-kun zentral eta sinbolo gisa («Euzkotar-
ren aberria Euskadi da»); urte gutxi bar-
rru, etsai politikoen isekak eta eruditu
euskaltzaleen kritikak gorabehera, Euska-
di izena euskal herri guztietan ezagutu eta
erabiliko da. Euskadi neologismoaz, eus-
kal arazoaren kontzeptualizazio teoriko-
an behar-beharrezko garbitasunak egin
ahal izan dira azkenean («*Euskal Herri»
terminua bere adiera etniko-linguistiko
zahar eta jatorrean errespetatuz); *propa-
ganda abertzaleak ere behar-beharrezko
zuen kontzeptualizazio-mugatze hori; ho-
nela Euskadi, euskaraz ala erdaraz berdin
erabil zitekeen izen eta sinbolo izanik, las-
ter bihurtzen da *erresistentziaren eta bu-
rruka nazionalaren adierazpen nagusi;
**País Vasco (vasco-español, vasco-francés,
vasco-navarro)** eta beste erdal izengaiz-
toak gaintitu ahal izan dira, orobat Foru-
zaleen euskarazko Hirurak, Laurak edo
Zazpirak bat, Bidasoaz handikoak, eta
beste zirkunlokio aldrebesak. Euskal na-
zio politikoari egun Euskadi deritza, eus-
kaldunen *herriak (*etniak), *Euskal He-
rria.

Joxe Azurmendi.

EUSKAL HERRIA.

Euskadiko Ezkerra (EE)

Euskadiko Ezkerra 1977.eko Ekainaren
15eko *hauteskundeetarako *koalizio bat izan
zen, *frankismoaren *erasoaz gero lehenengo
aldiz *diputatu eta *senadoreak hautatzeko
koalizioa.

Hasiera batetan *EHAS, *EIA, *LAIA
(*KAS osatzen zuten hirurak), *MCE/EMK,
«Eusko Sozialistak», «Eusko Komunistak» eta
independentiak izan ziren koalizio honetan
partehartu zutenak. Urte horretako Maia-
tzean, *amnistia-aren aldeko asteen gertatuak
zirela eta, EHAS, LAIA eta independente
batzuk utzi egin zuten aipatu koalizioa, hau-
teskundeetara ez zirela agertuko adieraziz.
1977.eko hauteskundeetan partehartzeko
EIAren erabakiak KASen atzerapena ekarri
zuen berekin. Aliantza honek Gipuzkoa, Ara-
ba eta Bizkaia hartzen zituen. Nafarroan ber-
din berdina ez bazen ere, *UNAI koalizioak
antzeko ezaugarriak zituen.

Hauek dira lortu zituen portzentaiaak:

Arabaren %2,1; Bizkaian %5,4; Gipuzkoan
%9,4. Gipuzkoan Frantzisko Letamendia
(Ortzi) diputadutzat eta Juan M^a Bandrés se-
nadoretzat lortu zituen.

Hauteskundeen ondoren, koalizioaren
*organo iraunkor gisa, *batzorde batek fun-
tzionatu zuen, hamabi lagunek osatua: EIAko
lauk, MCE/EMKko beste lauk, eta indepen-
denteen aldetik ere beste lauk. Gerora **Euskal
Komunistak** erakundea desegina geratu zen eta
Eusko Sozialistek ere koalizioa utzi egin zuten,
EHASekin batera, *HASI alderdia eraikitze-
ko. 1978.eko urtearen hasieran *OIC alderdia
Euskadiko Ezkerra (EE) koalizioan sartu zen.

Otsailaren 17an, *Euskal Kontseilu Na-
gusiko lehendakaria hautatu behar zela eta,
EEren ordezkariatzat koalizioako senadorea
agertu zen eta botazioan EIAk nahi zuen
*kandidatuaren alde egitean, koalizioa zatitua
geratu zen, EIA alde batetik eta OIC eta
MCE/EMK bestetik. Azkeneko hauen eritziz
*aliantza hau hautsia geratzen zen.

1979.eko hauteskundeetan, *ESEI,
EIA, eta *EKIA **Euskadiko Ezkerra** koali-
zioan bat eginda agertu ziren eta lortu zutena
hauxe izan zen: Arabaren %4,69, Gipuzkoan
%12 eta Bizkaian %6. Nafarroan koalizio ho-
netakoak **Nacionalistas Vascos** koalizioan
azaldu ziren, %8 lorturik.

EUSKAL IRAULTZARAKO ALDERDIA (EIA); EUSKAL SO-
ZIALISTAK ELKARTZEKO INDARRA (ESEI); HERRIKO AL-
DERDI SOZIALISTA IRAULTZAILEA (HASI); EZKER KO-
MUNIST ERAKUNDEA/ORGANIZACION DE IZQUIERDA
COMUNISTA (EKE/OIC); EUSKADIKO MUGIMENDU KO-
MUNISTA/MOVIMIENTO COMUNISTA DE EUSKADI
(EMK/MCE); EUSKAL NAZIONALISMOA.

Euskadiko Gazteria Abertzalearen Mugi- mendua (EGAM)

Bere oinarriak nolabaiteko autonomia
du, aparatua *EIAren izan arren. **Karraxi** ar-
gitaratzen dute, beren lehen zenbakia
1977.ean agertuz. Lehen zenbakietan *KASen
*ideologiaren inguruan ari zen. Dituen plan-
teoak klasezkoak (ik. GIZARTE-KLASEAK) eta
abertzaleak (ik. NAZIOA) dira batera.

EUSKAL IRAULTZARAKO ALDERDIA (EIA); GAZTEEN
MUGIMENDUAK.

Euskadiko Gazteria Gorria (EGG)

EMK/MCEren pekoa da. Beraren aldiz-
karia **Jaiki Gazteria** da, 1975.ean sortua.

MOVIMIENTO COMUNISTA DE EUSKADI/EUSKADIKO
MUGIMENDU KOMUNISTA (MCE/EMK); GAZTEEN MUGI-
MENDUAK.